



Iurretan, 2015ko ekainaren 10an

Familia agurgarria:

Datorren ikasturtean, zuen seme-alaba Juan Orobiogoitia BHI institutuan matrikulatuta dagoenez, idatzi hau bidaltzen dizuegu hainbat informazio emateko eta beharrezkoak ditugun datu batzuk jasotzeko.

- ✓ **KURTSO HASIERA:** 2015/2016 ikasturtea irailaren 8an hasiko da, goizeko 10etan. Aurkezpen horretan zuen seme-alabaren tutoreak kurtso hasierari buruzko informazioa emango die.
- ✓ **ORDUTEGIA:** DBH klaseak irailean, ekainean eta lanaldi jarraian dugun egunetan (asteazken eta ostiraletan) 8:10ean hasiko dira eta 14:10ean bukatuko dira. Bestelakoetan, goizeko 8:10ean hasi eta arratsaldeko 15:40an bukatuko dira.
1. Batxilerra: 8:10ean hasi eta 15:05ean bukatu ostiraletan izan ezin egun horretan 14:10 bukatzen da.
2. Batxilerra: 8:10ean hasi eta 15:05ean bukatu asteazkenetan eta ostiraletan izan ezin egun hauetan 14:10 bukatzen da.
- ✓ **JANTOKIA:** Jantokiko zerbitzua irailaren 14an hasiko da.
- ✓ **GARRAIOA:** Garraio zerbitzua erabiltzen duzuenok hurrengo taulan duzue informazioa.

IBILBIDEA	AURKEZPEN EGUNEAN SOILIK	LEKUA
OTXANDIO	9:10	Oleta eta Otxandio
ZALDIBAR	9:30	Autobus geltokia (sanatorio aurrean)
MAÑARIA	9:15	Txosna
	9:20	Erdeilagane
	9:25	Arriaundi
	9:35	Mañaria
	9:40	Izurtza
	9:45	Tabira

Aurkezpen egunean, goizeko 11etan bukatzen dugunez, autobusa Iurretatik 11:30ean irtengo da .

WEB orrialdearen helbidea: www.orobiogoitiabhi.hezkuntza.net